



**MUNGIAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO
PLAN ESTRATEGIKOA 2025-2029**



1.- AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA

Hausnartzea, antolatzea, epeak eta baliabideak ezartzea, hau da, planak egitea ezinbestekoa da aurrera-pausu sendoak egin ahal izateko edozein arlotan, are gehiago hizkuntzaren normalizazioan.

Udalek joko zelai bi dituzte hizkuntzaren normalizaziorako plangintzari dagokionean: barrukoa, administrazio barrukoa, eta kanpoko, herri mailakoa.

Administrazioako erakundeetan euskararen erabilera normalizatzeko planak egin beharra (erakundeen betebeharra) 1997tik dago araututa, Euskararen legea garatzen duen 86/1997 dekretuaren bidez. Herri mailan, ostera, normalizazio-planak egiteko eskumena zehaztu barik egon zen 2016an udalen legea onartu zen arte. Lege horren 7. artikulua ezartzen duenez, udalen eskumen propioa da *“beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko eskumena, horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean antolatuz (...)”* eta, lan hori gauzatu ahal izateko, artikulua horrek berorrek normalizaziorako planak egiteko eskumena ere aitortzen die: *“Udalerriek euskararen erabileraren eremuan aitortuak dituzten eskumenak baliatu ahal izango dituzte ordenantzak, erregelamenduak eta jarduera-planak onartuz”*.

Hala ere, Mungiako Udala 2003an hasi zen Eusko Jaurlaritzak ezarritako egitura estandar eta integralen bidez euskararen normalizaziorako planak diseinatzeko eta garatzeko. Hasieran, 2003tik 2014ra, “Euskara Biziberritzeko Plan Estrategikoa” (EBPN) izeneko eredia erabili egin zen plangintza osoa, eta gero, 2015etik hona, “Euskara Sustatzeko Ekintza Plana” (ESEP) izeneko eredia erabili. Guztira 6 plan estrategikoa eta urterik urteko 22 kudeaketa plan egin dira.

Azken plan estrategikoa (2018-2022) 2022an amaitzeko zenez, plan horren balorazioa osatu eta, urte horretako udagoienean egindako foroaren bidez, herritarren iritzia batu zuen Udalak. Hala ere, Eusko Jaurlaritzak euskalgintzako hainbat eragile eta aditurekin batera abian zuen hausnarketa-prozesua artean amaitu barik zegoela eta, plan berria diseinatzeko prozesua 2024ra atzeratu behar izan da (aurreko planari luzapen bi egin zaizkio).

Plan berriaren diseinua Mungiako Euskeraren Aholku Batzordearen (Euskaraldiaren Talde Eragilearen laguntzarekin) esku gelditu da. Lan horrek hiru zutabe izan ditu:

- 2024ra arteko lana eta lan horren balorazioa.
- 2022ko udagoieneko Euskara Foroetan jasotako iritzia eta ekarpenak.
- EJK eta euskalgintzako hainbat eragile sortutako AROA lan-markoa.

Hiru zutabe horietan oinarritu da 2024ko udagoienean landu eta diseinatu den 2025-2029rako Mungiako Plan Estrategikoa. Lehenengo biak dokumentu honen eranskinetan daude txertatuta, hirugarrenaren gaineko informazio gehiago nahi duenak helbide honetan aurki dezake: <https://www.euskadi.eus/aroa-marko-orokorra-eta-dokumentu-nagusia/web01-a2esep/eu/>




2.- MUNGIAN GAUR EGUN EUSKARAK DUEN EGOERA

2.1.- Datuak

a) Ezagutza/Gaitasuna


Mungiak azken hamarkadetan izan duen hazkundera etenik gabea izan da, EAEkoa baino nabarmen handiagoa. Azken urteetan, baina, igoera hori asko moteldu da, batez ere jaiotza-tasaren beherakadaren ondorioz.



Taulan ageri diren datu horien atzean, barne hazkunderi dagozkion datuez gain, kanpotik (estatutik eta, batez ere, atzerritik) etorritako herritarrak daude. Izan ere, azken hamarkadetan gorakada handia egon da immigrazio datuetan.

Hona hemen azken urteetan herrira etorri diren bizilagunen jatorriari buruzko datuak:

	2019		2020		2021		2022		2023	
	BIZT	%	BIZT	%	BIZT	%	BIZT	%	BIZT	%
ARABA	5	0,54	9	0,90	7	0,70	6	0,52	5	0,46
BIZKAIA	441	47,78	551	55,26	543	54,62	524	45,80	481	44,45
GIPUZKOA	12	1,3	20	2,00	10	1,00	10	0,87	16	1,47
ESTATUA	103	11,16	117	11,73	118	11,87	102	8,91	105	9,70
ATZERRIA	362	39,22	300	30,10	316	31,81	502	43,90	475	43,92
GUZTIRA	923		997		994		1.144		1.082	




Iturria: Mungiako HAPOrako egindako Eragin Linguistikoaren Azterlana.



Hazkunde horrek, nola ez, eragin zuzena izan du herriaren eguneroko hainbat esparrutan, are gehiago hizkuntzan, hau da, euskararen ezagutza eta erabileran.

Hona hemen Mungiako ezagutza datuak:




Bizilagunen kopuruaren gorakada oso handia izan den arren, ikusten denez, ezagutzari eutsi egin zaio. Euste horren oinarrian hezkuntza sistema dago, bai eta euskararen erabileraren normalizazioan, salbuespenak salbuespen, egin diren aurrera pausuak ere, zerbitzuetan (kultur eskaintzan, zerbitzu publikoetan...) eta gizartearen sentsibilizazioan (aldekotasuna ia erabatekoa da).


Hala ere, datuok ez dute erakusten azken hamarkadetako aldaketa horrek zenbateraino eraldatu duen herritarren hizkuntza-profila eta, oro har, hizkuntzaren ekosistema,. Orain dela 40 urte, 30 urteko mungiar tipoa hauxe zen: euskaldun-zaharra, gaitasun maila oso ona ahoz (idatziz alfabetatu gabea), guraso biak euskaldunak, etxean euskaraz, ikastetxean gaztelaniaz eta kalean ere, gehien bat, gaztelaniaz. Gaur egungo mungiar tipoa hau da: euskara eskolan ikasitakoa, gaitasun erdi-mailakoa (edo eskastxoa) ahoz, alfabetatua baina ez oso landua, gurasoetako bat behintzat erdalduna, etxean umeekin euskaraz baina gainerakoan gaztelaniaz, ikastetxean euskaraz eta kalean, gehien-gehiena, gaztelaniaz.

b) Erabilera

Aurreko atalean azaldutako eraldaketa horrek eragin zuzena izan du erabileran, etxe barrukoan eta kalekoan. Hona hemen etxe barruko erabilera datuak:



Kaleko erabileraren datu ofizialik ez dagoen arren, hau da, Soziolinguistikako Klusterrak neurketarik egin ez duen arren, herriko Batxilergoko gazteek hiru neurketa egin dituzte azken urteetan (klusterraren sistema bera erabilita):



**2018ko neurketa Euskaraldiko egunetan egin zen, beraz, datu hori ez da guztiz neutroa.

Kaleko erabileraren neurketak kontu handiz hartu beharrekoak izaten dira beti, egun jakin batzuetan eta leku jakin batzuetan egiten dira eta. Hala ere, hiru neurketak oso tarte laburrean mugitzen dira eta horrek, neurri batean behintzat, fidagarritasun-maila bat ematen die.

Datu horien —etxekoen eta kalekoen— irakurketa egitean ezin dira ezagutza-datuak eta datuok bere horretan alderatu, erabileran aldagai asko eduki behar dira eta kontuan: hiztun kopurua, euren profila, umerik dagoen ala ez inguruan.... Horren jakitun, Klusterrak “espero zitekeen erabilera” neurtzeko formula sortu du¹. Formula hori aplikatuta, Mungian etxeko erabilerak %22 ingurukoa izan beharko luke. Espero litekeen horretatik hurbil egoteak edo hortik gora egoteak euskaldunen atxikimendu-maila altua dela adierazten du, urrun egoteak, berriz, atxikimendu falta.

¹ Ikusi 3. eranskina.



Horretaz guztiaz gain, datuok erakutsi digute oraintsura arte ekuaziotik nahiko kanpo gelditu diren euskaldun hartzaileegan ere jarri beharko dela arreta aurrerantzean, eta etorkizunean aurrera egiteko oinarrietako bat izango direla.

2.2.- Esparrukako balorazioa

Atal hau aurreko planaren amaierako baloraziorako egindako azterlanean oinarritzen da, bertan agertzen denenaren laburpena da eta atal guzti-guztiak ez dira aztertu (balorazio osoa eta atal guztien gaineko ikusi nahi izan ezkerro, irakurri 1. eranskina).

2.2.1.- Familia

Ezagutza maila nahikoa altua den arren, etxeak aspaldi utzi zion babesleku sendo izateari eta, kasu askotan, eskolari pasatu dio lekukoa. Horren atzean arrazoi asko badaude ere, aipatzekoa da azken hamarkadetan Mungiako familien tipologiak izan duen aldaketa. Izan ere, guraso biak euskaldunak ziren familiak nagusi izatetik gutxiengo izatera pasatu dira.

Hala ere, euskararen erabileran aktiboenetakoa eta presten dagoenetako taldea familia gazteek osatzen dute, ume txikiak dauzkatenek.

Etxeko transmisioa esparru pribatua den arren eta arlo pribatuan eragitea zaila den arren, ez da esparru iragazgaitza (gaztelaniak irakatsi digun lez). Kanpotik eragiteko moduak aurkitu ahal dira, eskolatik xaxatuta edo kaleak eskaintzen dituen beste aukera batzuk aprobetxatuta.

2.2.3.- Ikastetxeak

Ikasleek D ereduan ikasteak (herriko ikastetxe guztiak dira D eredukoak) gutxieneko ezagupena bermatzen badu ere, argi dago ez duela kasu askotan gaitasun erlatiboa edo erraztasun nahikoa ematen. Erraztasun falta horrek, beste arrazoi batzuk ere tarteko direla, eragin zuzena dauka erabileran.

Eta ondorioa argia da, gaztetxo gutxi erabiltzen dute euskara ikastetxeko eremutik kanpo euren egunerokoan.

Gainera, aurreko atalean aipatu denez, asko dira atzerrian jaiotako ikasleak. Eurotako batzuk, gainera, ez dira ume-umetan etorri, eta asko kostatzen zaie ikasketen abiadurara egokitzea. Ikasleentzat bakarrik ez, ikastetxeentzat ere zaila izaten da egoera hori behar bezala kudeatzea (ikasle horien ikasketa prozesua eta talde osoarena).

2.2.4.- Euskaltegiak

Inoizkorik eta dirulaguntza gehien dago euskara ikasteko, maila batzuk doakoak dira eta beste batzuk ere nahiko doakoak (titulua ateraz gero). Hala ere, zailtasun nagusi bi ageri dira arlo honetan:

Batetik, ikasleek edo ez dute dirurik ikastaroetan matrikulatzeko —laguntza gehienak ostean ordaintzen dira eta— edo askotan ez ditu laguntza horien berri.



Bestetik, euskaltegien ohiko eskaintzak ez ditu asetzen egon dauden beharrianak. Izan ere, HABEren egitura sortu zenetik gizartea asko aldatu da, baita euskalduntze beharrianak ere.

2.2.5.- Lan-arloa

a) Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak

Merkataritzak eta zerbitzuek, oro har, herriak daukan hizkuntza-tipologia bertsua dute; hau da, euskaldunen kopurua (gutxienez ulertu) altua da. Gainera, egin diren ekimenek erakutsi dutenez, euretako askok euskara gainbalioztat ikusten dute. Eta lokal asko atxiki dira egindako ekimenetara.

Ostalaritzan, ordea, langileen hizkuntza-tipologia beste bat. Haietako asko atzerrian jaiotakoak dira eta, beraz, zailagoa da ostalaritzako lokaletan zerbitzua euskaraz jaso ahal izatea. Hala ere, badira, ahalegina egiten hasita daudenak. Gainera, ostalaritza, oso sektore ezegonkorra da.

Idatzizkoan, bai batean eta bai bestean, oraindik ere erdara da nagusi.

2.2.6.- Enpresa mundua

2019an egin zen azterlanak erakutsi zuen bezala, hainbat arrazoren ondorioz, Mungiako enpresa-ehunean, salbuespenak salbuespen, euskararen presentzia oso txikia da. Ez da batere erraza eurengana heltzea eta bertan eragitea, ahalegin txiki batzuk egin badira bere.

2.2.7.- Kirola eta aisia

a) Kirola

Kirol arloan bereiztu behar dira, batetik, Udalak eskaintzen dituen zerbitzuak, eta bestetik, klubek eta guraso elkarteek eskaintzen dituztenak.

Kiroldegiko ikastaroak eta zerbitzuak, umeen kasuan, euskara hutsean ematen dira. Helduei dagokienez, langileak saioak euskaraz emateko kontratatuta dauden arren, arrazoi ezberdinak tarteko, ez da beti betetzen eta ezinbestekoa da jarraipena egitea.

Klubek kasuan, alde handiak daude batetik bestera, euretako batzuek euskaraz funtzionatzeko autua egin badute ere, oraindik gehienek gaztelania dute nagusi. Egia da, hori ba, adin txikikoak dituztenen kasuan euskara nagusitzen doala apurka-apurka.

b) Aisia

Aisialdian ere bereizketa bera egin behar da. Aisialdi “arautuan” argi dago kulturako ekintzetan euskararen presentzia oso handia dela. Umeentzako guztia da euskaraz eta gaztetxoentzako ere bai. Aisialdi librean (lagunartean, kalean), orokorrean, gaztelaniarako joera ikusten da. Hala ere, badira 35-40 urteko tarte horretan euskararen aldeko aukera egiten duten herritarrak, eta gero eta gehiago direla ematen du.

2.2.8.- Kulturgintza



Aisialdiarekin gertatzen den bezala, udalak sortutako eskaintza gehien-gehienean euskaraz da eta oso zabala. Elkarrekin ere eskaintza sendoa sortzen dute baina, egia da, kostatu egiten da hizkuntza-irizpideak bermatzea. Azken urteotan gaztetxoei aukera gehiago ematea izan da erronka nagusia.

Sorkuntzari dagokionez, gizartea gero eta “ikusleagoa” dela kontuan hartuta, zaila da sorkuntza sustatzea. Ahaleginak egiten badira ere, oraindik lan handia egin behar da kultura hori zabaltzeko.

22.9.- Corpusa eta kalitatea

Azken hamarkada bietan corpusa batzeko eta normalizatzeko lan egin da (80 orduko grabazio etnografikoak, unitate didaktikoak, baserrien mapa...). Beraz, herriak Mungiako euskara batzeko izan duen zorra ordaindu egin du eta orain beste lan batzuetara pasatzeko ordua da: lan horri etekina atera eta zabalkundea eman. Baliabide horiek oso baliagarriak izan daitezke gazteen gaitasuna hobetzeko, kale-izenetarako...

22.10.- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak

Udalak kudeatzen dituen sareetan ondo betetzen dira hizkuntza-irizpideak, hala ere, udalak datozen urteetarako duen erronka nagusia (on-line administrazioa) oraindik guztiz eratu barik dago.

Edozelan ere, datozen urteetan lanketa berezia eta zabalagoa beharko duen arloa da.

22.11.- Hedabideak

Erakunde publikoek bermatu egiten dute euren hedabideetan (paperezkoetan zein sare sozialetan) euskararen erabilera eta kalitatea. Hala ere, ez dago herri ekimeneko hedabiderik eta, ondorioz, era horretako komunikabideek –egon denean euskarazkoa izan da eta sortuko balitz ere hala beharko luke– betetzen duten espazioa hutsik dago.


22.12.- Sentsibilizazioa eta motibazioa + kanpoko eta barruko proiektzioa

Azken urteetara arte sentsibilizazioari eta proiektzioari ez zaio garrantzi handirik eman, batez ere erabilera-esparruak lantzean jarri dira indar gehienak. Euskaraldiak, oster, aldatu egin du euskalgintzaren ikuspegia eta 2018tik gora hainbat ekintza egin dira herritarrek aktibatzeke, duda barik, Euskaraldia bera handiena. Dena den, arlo honetan hobetzeko eta lanerako sail zabala dago oraindik.

3.- IKUSPEGI ESTRATEGIKOA

Lehenengo plan estrategikoa egin zenetik, ahalegin gehien-gehienak euskararen erabilera indartzean jarri dira, hau da, herritarren egunerokoak diren bizi-esparruak euskalduntzean: hezkuntza, aisia, kirola, administrazioa...

Argi dago erabilera oinarri-oinarrizkoa ez ezik, normalizazioak bilatzen duen emailtza “arrakastatsua” ere badela. Hala eta guztiz ere, *erabilera* ez da beste barik landu daitekeen kontua. Erabilera handitu ahal izateko, ezinbesteko dira *jarrera* eta *ezagutza*, eta euroi eutsiko dien marko on bat, gobernantza eredu egokia eta sostengu tekniko (berrikuntzan) eskaintzen dituen; Eusko Jaurlaritzak, beste hainbat gizarte eragile eta aditurekin batera, proposatu duen AROA markoan islatzen duen moduan.



Horrenbestez, plan estrategiko honen ardatzak AROA markoan ezarritakoak izanik, hauxe da Mungiako 2025-2029 Plan Estrategikoak berariaz landuko duena:

- **JARRERA ETA MOTIBAZIO** arloan:


Azken hamarkadetan, euskarak ofizialtasuna jaso duen neurrian, aktibismoak behera egin du. Aktibismo hori, ordea, oraindik ere ezinbestekoa da euskararen normalizaziorako. Izan ere, zoritxarrez oraindik errazagoa da gaztelaniaz bizitzea. Euskaraz bizitzeko, ezinbestekoa da sentsibilizatuta eta aktibatuta egotea.

Beraz, aktibatzea izango da datozen urteetarako oinarri estrategikoetako bat, baita aktibatutako herritar horiek saretzea ere, izan ere, aktibatuta dauden hiztun horiek hizkuntza erabiltzeko esparruak ez eze komunitate bat ere behar-beharrezko dute.

Aktibatu ahal izateko lehenengo pausua kontzientzia hartzea da eta, kontzientziarekin batera, tresna eta baliabideak ere eskuratzea, hau da, ahalduntzea. Euskaraldiak ediziootan erakutsi digu zein garrantzitsua den baliabide eta jarrera horiek barneratzea erabileran eragin ahal izateko.




Jarrera eta motibazioaren lanketan, baina, ezin dira kanpoan utzi euskararekin kontakturik ez dutenak. Jende hori hurbiltzen ahalegindu beharra dago, batez ere, etorri berriak. Batetik, oso garrantzitsua litzatekeelako euskara gizarte-kohesiorako tresna interesgarria delako (integratzeko elementu modura; prestigioa), eta bestetik, etorkinen kopurua oso handia delako eta euskararen etorkizuna, neurri handi batean, euren esku dago.



- **EZAGUTZA / GAITASUN** arloan:

Edozein hizkuntza erabili ahal izateko eta hiztun horiek aktibatzeke, ezinbestekoa da hizkuntzaren ezagupena, hau da, hizkuntza ulertuko duen lurzoru zabala batetik, eta hizkuntza horretan gaitasun komunikatibo ona duen jende-talde ahalik eta handiena.

Beraz, azpi-arlo bi jagongo dira batez ere:



Kasu gehienetan herritar bati euskaraz bizitzea oztopatzen diona aurrean daukanak ez ulertzea izaten da. Hitz egin ez arren ulertu egiten dutenek, ordea, aukera ematen diete euskaraz bizi nahi dutenei hala egiteko. Horixe da behar den lurzoru zabala.

Xede taldea erdaldunak (oro har) izango diren arren, ahalegin berezia egin beharko da etorkinekin. Izan ere, herriaren hazkunde-datuetan ikusten denez, etorkinen kopurua oso handia da eta herriak ez ditu berez euskaldunduko.


Ukertze hutsak edota gaitasun eskastxoak izateak, baina, oztopatu egiten dute hurrengo pausua ematea: ausartzea eta euskaraz egitea. Hizkuntza bi ezagutu arren, erraztasun handiagoa dugun hori aukeratzea izaten da ohikoena. Ezinbestekoa da, beraz, gaitasun maila eta erraztasuna lantzea hautaketa (euskaraz edo gaztelaniaz egitea) parekatu ahal izateko.

Bigarren helburu hau lortzeko, talde nagusi bitan eragin gura da: gazteengan eta etorkinengan. Gazteek, oro har, euskara gutxi erabiltzen omen dute eta, salbuespenak salbuespen hori hala den arren, errealitatean sakondu eta horren arrazoiak aztertu beharra dago. Argi dago horren oinarrian arrazoi bat baino gehiago daudela baina oso kontuan hartu

beharreko bat euren gaitasun erlatiboa da (erraztasuna). Gazteak euskaldunen zakuan sartzen badituzte ere, kontu handiz baloratu behar da gazte horiek duten gaitasuna/erraztasuna, hortxe egon daiteke-eta erdarara jotzearen gako nagusienetako bat.

- **ERABILERA** arloan:

Erabilera izan da orain arteko planetan gehien landu den arloa, hala ere, oraindik bide handia gelditzen da egiteko. Zeintzuk izango dira lan-esparru nagusiak?



Erabilera-esparruok lantzen eta sakontzen jarraitzea ezinbestekoa da. Ahalegin berezia egingo da:

- 16 urtetik beherakoei inguru euskalduna bermatzeko (familia transmisioa, eskola ingurua, eskola-kirola, aisialdiko eskaintzak).
- Etorkinak gizarte-sarean integratzeko, laguntza asistentzialaz harago.
- Kale/gizarte mailan espazio babestuak sortzeko (merkataritza/ostalaritza eta zerbitzu batzuetan; elkarte batzuk).
- Gizarte aktiboa izateko euskal aisiari eta kulturari dagokionean.
- Euskarazko produktuen kontsumoa indartzeko (bertokora begira jartzeko).

Guzti horrek, duda barik, **GOBERNANTZA** eredu sendo batean egon beharko du oinarrituta, gidari direnen konpromisoa eta lehentasuna zutabe nagusitzat hartuta. Gobernantza eredu honek ezaugarri nagusi bi izan beharko ditu: euskara agenda politikoaren eta lan agendaren erdigunera ekartzea, eta euskarak kohesiorako tresna bihurtzea.

Eta, jakina, lan hori guzti hori egiteko, Udalaren eta herriaren baliabide propioez gain, Euskalgintza osoak egindako lana eta sortutako baliabideak eta praktika onak izango dira.

4.- PLAN ESTRATEGIKOA BERA



Plan Estrategikoak honakoak ezartzen ditu: ardatz estrategikoak, erronkak, lan-ildoak eta ekimenak; ez du ekintzarik jasotzen, ezta ezartzen ere. Hala ere, kontzeptuak argiago ikusteko eta orientabide modura, ekintza batzuk aipatu dira, eurok izan litezkeelakoan ildo-estategiko nagusiak gauzatzeko ekintza posible eta egokiak, horrek, baina, ez du esan nahi horiek izango direnik ezinbestean.

Epeari dagokionez, kontu bi hartu dira aintzat: batetik, euskararen munduan eta gizarte-arlo guztietan oro har aldaketak gero eta abiadura handiagoan ari direlako gertatzen. Eta bestetik, plan estrategikoak segituan diseinatzeko ibili beharrak indar handia eskatzen duela eta indar hori planak garatzeko egiten diren ekintzei kentzen zaiela. Horrenbestez, 5 urteko iraupena izango duen plana egitea erabaki da. Hona hemen:



MUNGIako PLAN ESTRATEGIKOA 2025-2029

GOBERNANTZA

G1.- Euskararen normalizazioa agenda politikoaren erdigunera eraman.

G11.- Herritarren hizkuntza eskubideen aldeko politikak garatu

G112.- Erakunde publiko eta pribatuekin lan egin herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko eginbeharrez jabe daitezen.

-Egiten diren planen (eta helburuen) berri eman

*-*Barra-barra, Harrobi eta Bikain landu eta babestu*

G12.- Koordinazioa eta osagarritasuna sustatu eremu instituzionalean zein sozialean.

G124.- Euskararen normalizazioan ari diren pertsonak, elkarteak, erakundeak, hedabideak, enpresak... saretu.

-Aholku Batzordea, Eskolen Lantaldea... jagon eta euren lana bideratu

G13.- Euskararen biziberritzearen aldeko lidergoa eta konpromisoa indartu

ERABILERA PLANA

G2.- Berariazko nahiz zeharkako hizkuntza-politika garatu, gainerako hizkuntzekin nahiz kulturekin bizikidetzan.

G21.+ G22- Eremu soziolinguistikoetarako hizkuntza-berezituak garatu + Gizartearen aniztasuna kudeatu euskara ardatz izanik.

-Etorkinen kolektiboari (EPA) Euskararen eta Euskaraldiaren berri eman

*-*Harrera-protokoloa / Batzordea*

JARRERA + MOTIBAZIOA

JM1.- Euskararen aldeko jarrera areagotu eta hitzunen ahalduntzean, hizkuntza-ohituretan eta portaeretan eragin.

JM12. (+JM11)- Gizartea aktibatzeke esperientziak indartu eta hedatu (+ Euskaldun izatearen kontzientzia eragin)

JM121 + JM122.- Lehen hitza euskaraz egitera gonbidatzeko ekimenak gauzatu + Eskaintza eta eskaera aktiboak eta jarrera proaktiboa bultzatu administrazioan, arlo sozioekonomikoan eta herritarren artean.

-Barra-barra

-Euskaraldia

JM13.- Euskal hiztun edo komunitate ahaldundua erdiesteko bidea egin.

JM131.- Ahalduntze prozesuak sortu eta dinamizatu

*-*Tresnak eta orientabideak eman gazteekin ibiltzen direnei (entrenatzaile, uda-pasetako begirale...eta gainerakoei)*



-Alduntze saioak antolatu

-Batxi2ko ikasleentzako unitate didaktikoa sortu (soziolinguistika ez teknikoa)

*-*Guraso-eskolan euskara familiar lantzeko moduak proposatu*

JM2.- Euskarari eta euskal komunitateari buruzko pertzepzio positiboa eta ikusgarritasuna handitu.

JM21. Euskaldunen komunitatea sendotu.

JM211.- Komunitatearekiko atxikimendua lortzeko eta komunitatearen parte izateko bideak aztertu eta estrategiak landu.

-Batzarde praktikoak sortu eta daudenak jagon: Eskola kiroleko batzardea, Eskolen Lantaldea, Aholku Batzarra, Merkataria eta Ostalariekiko harremanak...

-Herriko jendea/ekimenak baloratu/saritu: Euskera Saria, beste sari batzuk eta, batez ere, zabalkundea.

-Herri mailako komunikabide bat sortu.

JM22.- Gizartea aktibatzeke esperientziak indartu eta hedatu. Prestigioa/erakargarritasuna landu

JM221.- Gizartearentzat erreferenteak diren pertsonekin zein erakundeekin euskara sustatzeko lanketa egin.

-Erreferente onak ekarri (Euskal Herri eta herri mailakoak)

JM225.- Euskarak eta euskal kulturak duten nortasun propioaren indarra baliatu eta erakutsi

-Militanteak sortu: ZELAN?

-Euskararen eguna, Euskera Saria...

-Herriko euskara baloratu eta zabaltu: Mihiluze antolatu, "Mungian zaharrak barri" zabaltu (sareetan, Mungiarran, agendan...)

JM24.- Euskararen hurbildu ez diren herritarrek euskarara erakarri.

JM242.- Kasu edo praktika ereduak identifikatu eta gizarteratu.

-Taldeen irizpideak eman erdaldunak euskalduntzen hasi daitezen

JM244.-Atzeritar jatorriko herritarrentzako harrera linguistikoa eta kulturala zehaztu eta indartu.

-Etorkinentzako harrera-protokoloa sortu

JM245.- Atzeritar jatorriko herritarren kultura eta hizkuntzaren, eta euskal kultura eta euskararen arteko zubia egiteko estrategia hezitzaileak diseinatu.

-Etorkinekin ekintza bateratuak antolatu (adibidez kultur taldeak egiten dituzten jardueretan)



EZAGUTZA/GAITASUNA

EG2.- Euskara irakatsi eta ikasteko aukerak indartu eta berriak sortu.

EG22 (+EG21). - Euskara ikasteko aukera berriak sortu eta baldintzak erraztu. + (Ezagutza orokortzeko eta espezializatzeko baliabideak handitu eta tresnak sortu.)

EG221.- Tokian tokiko beharrei erantzuten dieten euskalduntze prozesuak aztertu eta beharraren arabera eskaintzak sortu.

-Gurasoentzako taldeak: 1. urtean bereziak > 2. urtean euskaltegiko formatua

-Merkatari /ostalarientzako taldeak: eguerdietan. Eurentzako ikastaro laburrak

-Ume etorkinentzako eskola bereziak

-Dauden dirulaguntzak aztertu; + dauden dirulaguntzen berri eman matrikulazio garaian eta kolektibo jakinei.

EG3.- Euskarara hurbiltzen diren atzerritar jatorriko herritarren kopurua handitu.

-Ikastaro laburrak, 60 ordukoak (AISA erakoak)

EG4.- Euskararen ezagutza orokortzeko bidean, erraztasuna (gaitasun erlatiboa) berariaz zaindu.

EG41.- Euskal elebidunen eta elebidun orekatuen ehunekoa handitu, bereziki gazteena.

EG412.- Gazteen adierazkortasuna eta euskararen ezagutza praktikoa handitzeko tresnak garatu.

-Erreferente egokiak ekarri

-Erderazko hizkuntza-baliabideen euskarazko ordainak irakatsi (kirolean...): hiztegiak, esaldi tipoak...

*-*Bertsolaritza eskaini ikastetxeetan*

*-*Antzerki arloko tailerrak antolatu*

EG42.- Euskara gaitasuna hobetu

EG422.- Esparru naturalagoetan/informalagoetan euskara erabiltzeko baliabideak garatu.

*-*Euskarazko udalekuak babestu: umeentzat uda-pasak antolatu, gazteentzat "Mugaz" babestu*

-Ekintzak euskaltegitik kanpo (pasibo > aktibo): berba-probak...

ERABILERA

EE1.- Euskara eguneroko bizitzan eroso erabiltzeko berariazko estrategiak garatu.

EE11.- Euskararen babesguneak indartu eta berriak sortu.

EE111.- Belaunaldiz belaunaldiko transmisioa indartu eta etxeko erabilerari eutsi.



- Jaioberrientzako gutunak banatu
- "Euskararen kriseilua" ekimena gauzatu*
- *Guraso-eskolan euskara familian lantzeko moduak proposatu*
- "Haurren aurrean, helduok heldu" ekimena gauzatu*
- Transmisioaren ekimenean sartu
- Gazteek euskaraz ikasten jarrai dezaten sustatu
- Eskolaren curriculumean euskararen historia landu
- *Herriko euskara baloratu eta zabaltu: Mihiluze antolatu, "Mungian zaharrak barri" zabaldu (sareetan, Mungiarran, agendan...)*
- Euskarazko komunikabideak ezagutarazi
- Eskolen lantaldearen egiteko indartu: ikastetxeen eta udalaren egitekoak berraztertu eta bere lanari etekina atera*

EE113.- Euskara lan- eta zerbitzu-hizkuntza gisa orokortzeko prozesuak garatu erakunde publikoetan, eta euskaraz lan egiteko eta zerbitzua emateko aukeretan eragin erakunde pribatuetan.

- Administrazioan planak egin eta gauzatu*
- Merkataritzan "Barra-barra", Harrobi, Bikain bultzatu*
- Ostalaritzarako oinarrizko esaldiak batzen dituzten esku-orriak sortu*
- Dirulaguntzak karteleria euskaraz jartzeko*
- Enpresa mundura heltzeko aukeren gaineko hausnarketa bideratu*

EE115.- Asialdi antolatua eta kirolaren esparruetan eskaintza zein erabilera bermatu eta orokortu.

- Udalaren kultur eskaintzan euskarazko ekintzak lehenesten jarraitu.*
- Eskola Kirola euskalduntzeko lan-mahaiari etekina atera (guraso elkarteak + kirol klubak)*
- Kirol taldeetan esku-hartzeak gauzatu (EUSLE erakoak)*
- Sentsibilizazioa lantzeko ekintzak garatu: bideoa + Euskaraldia*
- Kirol klub guztietako ordezkariekin saio batzuk egin: hizkuntzak zelan gestionatu? Ze arazo sortzen da? Zelan egin aurre?*
- *Tresnak eta orientabideak eman gazteekin ibiltzen diren entrenatzaile + euren arloko ikastaroak*
- Jarraipen sistema bat sortu eta aplikatu (batez ere, 16 urtetik beherakoen kasuan)*

EE116.-Ingurune digitalean euskara erabiltzeko espazioak irabazi.

- Material digital interesgarria sortu eta herritarrak erabiltzen animatu: "Gurot", "Mungian zaharrak barri".*



EE118.- Euskarazko kultura produktuak sortu eta ezagutarazi, kontsumoa areagotzeko.

- Kultura ekitaldiak antolatu: kontzertuak, irakurle kluba, bertso-afariak, lehiaketak
- *Euskarazko udalekuak, negulekuak...
- Jarraipen sistema bat sortu eta aplikatu (batez ere, 16 urtetik beherakoen kasuan)
- "Euskarazko produktuen katalogoa" banatu

- Mundu digitala

- Herriarrei erakutsi zer baliabide dagoen euskaraz
- Herriko erakundeen webguneak euskaratzeko laguntza eman

EE119.- Kontsumitzaileak eta zerbitzu publikoetako erabiltzaileak ahaldundu euskara erabil dezaten.

- Gida-baimena euskaraz ateratzea sustatu
- Errenta aitorpena euskaraz egiteko kanpainak bultzatu

- Turismoa

- Gure hizkuntza balore turistiko eta elementu erakargarri modura tratatu

BERRIKUNTZA /SORMENA (AROAK ez ditu azpi-atal hauek horrela planteatzen)

B1.- Sortzen denaren zabalkundea egin (musika, antzezlanak, liburuak ...)

- Gazteak kultur ekintzetara animatu (bonuak, prezio bereziak...)
- "Euskarazko produktuen katalogoa" banatu

B2.- Herriko bizilagun euskaldunen sormena bultzatu

- Sariak bultzatu: Lauaxeta Olerki Lehiaketa, ipuin, podcast... lehiaketa + berraztertu eta aukera berriak landu
- Ikastaroak edo bekak atera
- Herrian dauden baliabideak indartu: Mungirock, Torrebillela, Gaztegunea

Plan honetan ezarritako ardatz, erronka, lan-ildo ekimenak ekintzetara ekartzea eta gauzatzeko zehaztapenak ezartzea (baliabideak eta kronogramak) plan horri berorri lotuta joango diren urterik urteko kudeaketa planen bidez egingo da.